


LUMA BERRIEN AZTARNAK
CARMEN VALOIS



Irudia:
Kristina Fernandez

Carmen Valois

Gizalegezkoa da oroitzea.
Kontatzea, norberaren aukera.

NOR DA

Gune terapeutikoak

Carmen Valois

Liburu aurkezpenak gogoko ditut. Aukera ederra izaten da idazlearen eta irakurlearen arteko elkarrekin-tza zuzenean ikustea, edo hala iruditzen zait behintzat. Herrian, oro har, ez dut horrelakoetara joateko aukerarik izaten, eta ordutegiak direla medio, ezta herritik kanpo ere. Horregatik, aurkezpenaren iragarkia ikusi nuen, zera pentsatu nuen, plan ezin hobea zela ostiral arratsalde baterako –are hobea azken bolada honetako klimatologia kontuan hartuta–. Beraz, iragarritako orduan liburu-dendara hurbildu, eroso kokatu eta zentzumenak adi-adi nituen, horrelakoetan ia besterik ez da egin behar, irakurle anonimoa izateak abantailak ditu-eta.

Aretoan, lerroan jarritako aulki hutsak betetzen hasi dira pixkanaka. Aurrean, mahai txiki bat dago –loreontzi txiki batekin– eta bi aulki. Ezker-eskuin liburuak, aurrean eta atzean. Giro atsegina sortzen da liburu-dendetan, hitz iradokitzaileak hitzak gustuko dituen edonorentzat. Bertan, erritmo pausatua izaten dela esango nuke, estatikoa eta aldi berean estetikoa den mugimendurik gabeko elementuen gunea. Eta hala ere, bizi-bizia. Apaletan kokatutako liburuak hainbat altueratan daude jarriak, batzuk bestetuk baino eskuragarriago. Badirudi horien azalak deika ari direla angelu guztietatik –propio duten doinurik gabeko lengoaiari–, eskutan hartzera gonbidatuz.

Libururen bat hartuz gero, harrapatua gera gaitezke bertan –armiarmanen jokabidearekin konparatu dut, hura ere geldi-geldi egoten baita presa hurbildu artean–. Hori gertatzen bada, hor izango du hasiera idazlerengandik irakurlearenganako istorioak, hitzak harreman horren bitartekari direlarik. Gerta daiteke, momentu horretatik aurrera, estatikoa zen erlazioa dinamikoa bilakatzea, hitzek sorrarazten duten interakzio hori dela medio, gehienetan norabide bakarrekoa izan arren. Horregatik, liburuaren egilea aurkezpenean egotea luxua izaten da; bai, nolabait presentzia horrek ahalbidetzen duelako hartu-emanen denbora errealean eta bi norabideetan egitea.

Halako batean eseri dira ba, biak: egilea eta elkarrizketa-tzailea, emakumea eta gizona. Agurtu gaituzte, hor izategatik eskerrak emanez –nahiz eta eskerrak guk eman behar eskaintza egiteagatik–. Ekin diote elkarrizketari. Gauza askoren inguruan galdetu dio gizonak, kontakizunaren egituraz, liburuaren generoaz, esaldien arkitekturaz, hitzen erabilera oparoaz eta landuaz, hiztegiaren erabileraz... Dena jakin beharrekoa, ikuspuntu formalari begiratuta behitzat, eta niretzat, hala ere, interesgarriena edukiari lotutakoa izan da.

Izan ere, kontakizun intimoa iruditu zait idazlearena, bi-

luzia; galeren inguruko harilkatze bat: bizipenek eragindako desegite eta berreraikitze prozesu baten bi aldeak jorratzen dituen, eta agian, kasu honetan gutxienezkoa errealitateaz edo fikzioaz ari den jakitea da, hain da lausoa bien arteko muga; azken finean, benetakotasuna eta espresioaren indarra izan daitezke irakurleentzat garrantzitsuenak. Idazlearentzat, seguruenik, hori jakitea baliotsua ere bada, bere intimitatearen agerpen publikoa egiten duenean, eskuza-baltasunez ari baita jokatzeko, ia itsu-itsuan, jakin gabe beste aldean zer erantzun mota topatuko duen. Eta hala ere, partekatzea doa kontakizunak berak bizipen unibertsalak eta komunak dituelakoan.

Hain zuzen, unibertsalak direlako, besteontzat ulergarri, bizigarri eta sendagarri izan daitezke. Funtsean, idazteak bere baitan terapeutikoa izatearen dohaina ere badu eta baita pedagogikoa izatearena ere. Dudarik gabe, sentitzen edo sufritzen duguna hitzetan jartzeak osatzeko bidean jartzen gaitu, berrero berreraikitze prozesuan; horregatik sozializatu egin behar ditugu esperientzia horiek besteontzat lagungarri direlakoan.

Eta zer behar da horrelako prozesua gauzatzeko?

Lehenik eta behin, norberak bere burua ondo ezagutu behar du, horrek lagunduko baitio bere pasioak, emozioak eta beldurrak ezagutzen eta gobernatzeko. Autoestimua ere beharrezkoa izango du, horrek emango baitio bere bizitza proiektuari ekiteko nahia eta kemen. Horrelakoetan, are gehiago emakumeon kasuan, elementu horiek erabateko garrantzia dute burujabetza –gaur egun darabilgun *empowerment* kontzeptua– gauzatzeko ahalmena. Eta batez ere, erabateko konbentzimendua izan behar du bere buruaren ardura beste baten eskuetan ez uzteko, eta bere bizitzaren protagonista osoa bilakatzeko.

Horregatik, idazlearen jario indartsuak gora egiten duen bitartean, nire burua osasunaren definizio biopsikosozialarekin ari da bueltaka: zenbat gaixotasun ekidin egingo genuke burujabetza prozesuak bultzatuko bagenitu?

Eta orduan, liburu-dendak gune terapeutikoak bailiran imajinatu ditut, liburu-terapia praktikatzeko, bertan harremanak sendotzen dituen jendartea dagoelarik, hitz eta pentsamenduen arteko koherentzia bilatzen duen jendea, gizarre osasuntsuago baten alde lan egiten duena, beste kohesio eredu bat eraiki nahian.

Zuk, irakurle, imajinatzen al dituzu??

Oharra: Hausnarketa honen abiapuntua Miren Agur Meaberen "Kristalezko begi bat" izan da.